

Angel Luis Alvarez, sagardo sagarraren produktorea

“Sagardo sagar ona dexente falta da”

Para Angel Alvarez, fruticultor afincado en Beruete, el cultivo del manzano de sidra tiene futuro y puede ser una alternativa. Comenta que el manzano sidrero es una planta “fuerte”, con pocos problemas de enfermedades y pocas exigencias de poda, lo que lo convierte en un cultivo atractivo.

En Euskal Herria se producen anualmente del orden de 7 millones de litros de sidra y el consumo va creciendo. Además, gran parte de la materia prima se importa desde Asturias o Francia.

Según los datos procedentes de plantaciones en Asturias, la producción por hectárea puede alcanzar los 35.000 kilos, mientras que el precio oscila entre las 32 y las 35 pesetas por kilo.

Angel Luis Alvarez frutagilearentzat sagardo sagarraren produkzioa «alternatiba» izan daiteke mendialdeko nekazarientzat edo “konplementoa behintzat bai”. Aipatzen duenez, gero eta gehiago dira sagardo sagarrak jartzen dituzten nekazariak zonaldean. Berak hiru hektarea t'erdiditu Beruete herrian, eta hortaz gain, sagardotegia ere badu.

“Sagardo sagarra fuertea da, arazo gutxi ematen ditu gaitzekin eta abar. Baserritarrek sagasti kozkor batzuk jartzeko ez da problemarik izan-

go. Kaso pixka bat eginez baina burua gehiegi hautsi gabe eraman daiteken gauza da. Basaburuan, esate baterako, ari dira animatzen”, azaltzen du.

“Sagardo sagar ona oraindik ere dexente falta da, gazia eta garratza batez ere, kentzen joan baitira sagarra mota hauek. Asko ekartzen da kanpotik. Bertan izan ezkerro, ahorratu egiten dituzu porteak eta sagardozaiekin kontaktu zuzena erraztu egiten da”.

Nafarroan goruntz doa sagardoaren kontsumoa, naiz eta Gipuzkoa egin eta kontsu-



Angel Luis Alvarez, sagardo sagarraren produktorea.

mitu gehiena. Alde horretatik, Gipuzkoako beharrak ornitze-

ko alegia, “bertatik bertara”, etorkizuna ikusten du Alvarezk.

Sagardoaren kontsumoari dagokionez, itxaropentsu agertzen da. “Mantxo dijoa” baina “aurrera” segituko duela iruditzen zaio. “Sei edo zazpi miloi kilo egiten dira eta aurrera doa sektorea. Ez dakigu non geldituko den, baino aurrera dijoala bai”, azaltzen du.

Kostoak eta produkzioak

Sagardo sagarraren kiloa 32-33 pezetetan saldu da azken urte hauetan, kostoa berriz, 30 pezetakoa izaten da gutxi gora behera. Produkzioaren inguruan ez daude datu gehiegi, gutxi baitira sagardo sagarraren plantazioak Euskal Herrian. Asturiasko datuak kontutan hartuta, eta lurra ona izanik, 35.000 kilokoa izan daiteke produkzioa hektarea batean.

Plantazio intensiboetan 106 patroia erabiltzen da, “patroi txikia produkzioan lehenago hasteko” eta bigarren edo hirugarren urtean biltzen dira lehenengo sagarrak, zortzigarren goan sartzen direlarik produkzioan bete betean.

Plantazio markoari dagokionez, eta 2,5 metrokoa gomendatzen badute ere, Alvarezk 3*5 metrokoa erabili du, eta konten dago. Egokia-goa da bere ustez.

Formazio sistema berriz, eje zentralarena erabiltzen da eta inausketa exigentzia gutxi ditu sagarrondoak.

“Sagardo sagar ona oraindik ere dexente falta da, gazia eta garratza batez ere, kentzen joan baitira sagarra mota hauek. Asko ekartzen da kanpotik. Bertan izan ezkerro, ahorratu egiten dituzu porteak

Aipatzekoa da plantazioa intensibo hauetan ezin dela sartu aziendarik. Sartu nahili izanez gero, plantazioak bakanagoak egin behar dira, “patroi frankoak erabiltz”.

Ekologikoa

Alvarez Biolur elkartearen barruan dago, eta nekazaritza ekologikoaren arauak segitzen ditu. Hortaz, produktu naturalak bakarrik erabiltzen dituzte.

Esandakoaren ildotik, hauxe aipatzen digu: “Leku hau oso ona da sagarrondoaren osasunerako, sana. Gaitz gutxi sortzen dira eta pestizida gutxi erabili behar izaten da”.

Kalitatearen aldetik, “apartekoa” dela azpimarratzen du egindako frogen arabera, “Gipuzkoakoa edo Asturiaskoa bezain ona”.

Arazo bat aipatzearen, izotzaren gaia atera digu. “Zonalde honetan ez dago harriaren arriskurik, izotzarena bai ordea. Hori dela eta, beranduko sagarrondoak sartzen ditugu”. Seguraski biltzea izanen da sagarrondoan lanarik handiena. Dena dela, plantazio intensiboak prestaturik daude biltzeko mekanizatzeke, baina hori bai, hamar bat hektarea behar dira horretarako, inbersioetan sartzeko alegia.

Plantazioak egiteko diru laguntzarik ematen ez badute ere, eskatzeko asmotan dira sortu berria duten produktoreen elkartearen bidez.

Egun, Asturiasen eta Gipuzkoan bakarrik subzentionatzen da sagarrondoaren plantazioa.

CURSOS DE DIVERSIFICACIÓN AGRARIA EN NAVARRA



FORMACION AGRARIA

INSTITUTO TECNICO Y DE GESTION DE NAVARRA

• CURSO DE INICIACION A LA AGRICULTURA ECOLOGICA

Contenido: Normativa y reglamento de la A.E Agricultura y medio ambiente. Fertilización y reconversión de suelos agrícolas. Protección de cultivos. Visitas.

Horario: Martes de 16 a 20 horas. Duración del curso: 20 horas.

Fechas: Del 29 de Abril al 27 de Mayo de 1997.

• NUEVAS PRODUCCIONES GANADERAS

1) GRANJAS DE AVESTRUCCES

Contenido: Instalaciones (parques, incubadoras...), manejo, cría y engorde. Estudio económico. Visitas.

Fechas y horario: Días 8, 9 y 12 de Mayo. Horario por la tarde.

Duración: 15 h.

2) CRIA DE POLLOS AL AIRE LIBRE

Contenido: Instalaciones y manejo. Comercialización. Estudio económico. Visitas.

Fechas y horario: Mes de Mayo; horario a concretar. Duración: 15h.

lugar
PAMPLONA

Información e inscripciones:

Avda. San Jorge, 81. Entr.dcha. Tf: 27 80 11. 31012 PAMPLONA (Navarra)